

Martintxoren zazpi ahaleginak (Hiru lehenak)

Xan Errotabehere-k kontatua

Ogi-bihien jabetza

Herri honetako jendeak gose gorrian daude. Haurtxoak eta zaharrak hiltzen. Martintxok ezin du holakorik onartu. Ez da amore ematen duten horietako mutikoa.

Halako batez menditik herriraino etorri zaizkie Basajaunen kantua eta zinkak. Gain hartara igan eta barrandan egonez, gure mutikoak ikusi egin ditu gizon erraldoiak, "Basajaunak", hor dabilzala gari-bihi meta batzuen gainetik jauzika, zeinek jauzi handiena egiten. Unean bertan, ideia bat piztu zaio buruan. "Lotu behar diat buruz, ez indarrez!"

Egun berean, etxera itzuli eta aitaren abarkak eta galtzerdi handiegiak soinean emanik, Basajaunen eremuetara igan da berriz. Eta ausartu haien desafiatzera : "Jokatzen dut zuek baina gorago jauzi egiten dudala gari meta horien gainetik" Basajaunak trufatzen zaizkio. Halere ez dira sobera fida.

Salto egiteko bere aldia etorri zaiolarik Martintxok, aitaren abarka handiekin, abiada hartu eta gari-metaren erdi-erdira, zuzen, salto egiten du. Eta milaka ogi bihi sartu zaizkio galtzerdi eta abarketan. Martintxok irriz : "Zein zozoa naizen. Jauzia arrunt huts egin dut." Metatik jausti, Basajaunak agurtu eta zangoak pizu, besterik gabe, hasi da etxera buruz lasterka urruntzen. Hainbestenarekin, oiher bat atera zaio gibeletik:

- Eh! Lagunak! Ikusi duzue zer egin duen mukizu horrek !
- Ez ditu abarkak hustu guk bezala, gari-metatik jaustean.
- Gure gari-bihiak lapurtu dizkigu !
- Harrapatu behar dugu, harrapatu !

Orduan Basajaun guziak Martintxoren gibeletik lasterka abiatu zaizkio. Mutikoak entzun ditzake hurbiltzen, lurrean zaunpa-zaunpa. Bat-batean sentitzen du haize batek beharria ferekatzen diola, eta arbola enbor batean "tanka" sartzen ikusi du aizkora. Aizkora bota diote ! Beldurra sabelean, lasterka segitu du zuhaitzen artetik sigi-saga, erbia bezala, abarkak gari-bihiz beteak izan arren. Azkenean basajaunek galdu dute Martintxoren herrestoa eta marmarika murmurika itzuli dira beren mendietara.

Aldiz behereko herritik oiherak eta irrintzinak jalgi dira :

- Martintxok ogi-bihiak ekarri dizkigu! Ogia janen dugu !

Eta hasi da festa.

- Festa ! Festa bai, baina ? Aizue! Ba ote dakizue gari-bihia noiz eta nola ereiten den?"

-Ez ! ... Ez ! ... Ez!

Nehork ez daki.

Baina Martintxok badaki gari bihiaren ereitearen sekretua biltzeko ere Basajaunen mendira beharko duela itzuli. Bainan, orai, kasu Basajaunekin !

Ogi-bihien ereitea

Horrenbestez, Herrian ogi haziak badituzte, baina orain, Martintxok Basajauneri bihien ereitearen sekretua behar die nolazpait ebatsi.

Nola jokatu ? Betiko maneran ! Mendialdean, Basajaunen eremuetan ehunka orenez barrandan gordea egonez. Horrela soilik lor dezake erraldoien sekretu zenbait. Eta egunen arteko egun batez ustegabekoa gertatu zaio. Entzun ditu Basajaunak orroaz kantuz.

Ja jaaai! (irrintzina)

Balekite, hartuko lukete

Hostoa erortzean garia da ereiten,

Hostoa jalgitzean artoa da ereiten

Eguna laburtzean arbi da ereiten.

“Hostoa erortzean garia da ereiten !” Hori bai suertea ! Martintxok ulertu du noiz zer egin ! Orain Martintxoren herrian badakite udazkenean behar dela ogi-bihia erein, hostoak arboletarik erortzen direnean. Uzta, ondoko uda-minean egiteko esperantzarekin.

Igitaiaren egitea

Martintxoren herrian, ogiaren edo gariaren uzta esku hutsez egiten dute, landareari tiraka. Bistan da, eskuak zauritzen zaizkiela. Pausa-aldi luzeak egin behar dituzte, uzta garaiak ez du bukaerarik.

Atsedean egun batez, ilunabarrean, zeru zolan ilargi-gingil fin bat atera delarik, Martintxok bere arreba bidali du mendialdera, Basajaun zenbaitekin mintza dadin. Andere gazteak, alorretik heldu den Basajaun bati galdatzen dio deblauki :

— Nola biltzen duzue garia eskuak urratu gabe ?

Basajaunak ez du hitzik erantzuten. Irriz hasi eta behatzarekin Ilargi gaztea erakusten du, "Ah-ah-ah!" Aski izan da. Andere gazteak dena ulertu du.

Ondoko egun batez, Martintxok igitaia burdinez egin du ilargi-adarraren forma emanaz. Hortik landa Martintxoren igitaia mundu osoan erabilia izan da.